

Larraine

Aurkibidea

Udalerria: Larraine

Sarrera



Larraine Zuberoako hego-mendebaldeko udalerria da, Basabürüa eskualdekoa. Udalerrri hauekin mugak: iparraldean Altzai-Altzabeheti-Zunharri, Arhane-Sarrikotagaine eta Etxebarre, ekialdean Atherei eta Santa Grazi, mendebaldean Leku Mendibe Nafarroa Behereko udalerrriak eta hegoaldean, Izaba, Uztarroze eta Otsagabia, Udalerrria bera oso menditsua da: besteak beste Belozkarre, Salhagaina eta Barazea mendiak honen lurraldean daude. Zuberoako udalerrria da bere 126,8 km²-rekin. Holtzarteko arroiak daude. Laborantza, basogintza, artzaintza eta inguruko zerbitzuak dira udalerriko ekonomia nagusiak.

- **Biztanleak:** 196
- **Euskaldunak:** %73,36

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **8**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Ainhoa Beolaren fondoa
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus

Hizlariak

Beñat Behety (1924)

Beñat Behety Larraineko Uthurrigoyhen etxean sortu zen, Ohartia izeneko auzoan. Beñaten aita Xengrat Behety zen, etxaldekoa, eta ama Martine Aguer, Zarzaia auzoko Xühia etxekoa (Larrainen). Anai-arrebetan Beñat zaharrena da. Jean Pierra, bigarrena, 5 urte zituelarik zendu zen. Uhartia izeneko etxera joan zen eskolara. Larraine bazterrean bizi zirenak (“Gainetejak” edo “Bazterrekoak” deitzen dira) joaten ziren bertara. Beñaten ama gazte zendu zen, seme gehienak 10 urte zituela. Ondorioz, Beñat bi urtez Nay herriko eskolara joan zen, osaba han baitzen irakasle (Behety apeza, ondotik Liginagan 30 urtez apez egon zena). Igande guziz karrikara zihoazin mezara, eta han bazkaltzen zuten. Beñatek etxearen segida hartu zuen. Laborari eta artzain lana esplikatzen du (artzaingo sistema Baxe Nafarroan eta Xiberoan ez da bera). Gazna egiten zuten. Uthurrigoyhen etxetik mitil asko pasatu ziren; haiei buruzko azalpenak ematen ditu Beñatek. Besteak beste albalakei buruz ere hitz egiten du (urtarrilean etxez etxe egiten zuten kantu eskea).



Xuxe Etxeberry (1941)

LNE-003 Hizlari ezezaguna

LNE-004 Hizlari ezezaguna

Joseph Kortondo (1946)

Pierrot Larrandaburu (1945)



Larrainen sortua, Etxebarne Hiria izeneko etxean. Sei haurridetan bosgarrena da. Telekomunikazioan lan egin du ibilbide osoan, bai Parisen eta Iparraldean. Kantari da Oldarra taldean. Ehiztaria eta arrantzalea da bere denbora pasan.

Robert Larrandaburu *Pipas* (1955)



Robert Larrandaburu *Pipas*, Larrainen jaio zen 1955an. Euskal alpinista eta mendizalea da eta mendi-gidaria eta mendiko bizikletako irakaslea da. Ipar Euskal Herriko Himalaiako lehengo espedizioa berak egin zuen eta 2002an Everest mendia igo zuen 20. euskal herritarra bilakatu zen. Mendian, oinez zein bizikletaz ibiltzeko hainbat ibilbide-liburu idatzi ditu.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com